

15

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA **FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS** **DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2017**

31 martxoa / marzo - **7** apirila / abril

Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world



VICTORIA EUGENIA

Amazkion





ZINEMA
CINE

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA
CICLO CENTROS CULTURALES

ERAKUSKETAK
EXPOSICIONES



VICTORIA EUGENIA

Aritzakola

MARTXOAK 28 MARZO
asteartea / martes

19:00
EUS

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA
CICLO CENTROS CULTURALES
WALLS

C. C. Egia K. E. (*sarrera doan / entrada libre*)

MARTXOAK 29 MARZO
asteazkena / miércoles

19:00

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA
CICLO CENTROS CULTURALES
OZPINAREN SINDROMEA

C. C. Aiete K. E. (*sarrera doan / entrada libre*)

MARTXOAK 31 MARZO
ostirala / viernes

16:30

Sheroes
NOCES

19:00

KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA
CICLO CENTROS CULTURALES

MUJERES INMIGRANTES Y RESISTENCIAS

C. C. Ernest Lluch K. E. (*sarrera doan / entrada libre*)



19:30

El mundo de Embarka
The Cut
CLASH

22:30

La niña de la buseta
MIGAS DE PAN

APIRILAK 1 ABRIL
larunbata / sábado

16:30
EUS

Watu Wote
THE WAIT



19:00

17 años juntos
LA MANO INVISIBLE

19:00

AUSTERLITZ
Tabakalera

22:30

Palabras de Caramelo
ÚLTIMOS DÍAS EN LA HABANA



VICTORIA EUGENIA

Aritzak

APIRILAK 2 ABRIL
igandea / domingo

- ★ 16:30 **Beti bezperako koplak**
AMA, NORA GOAZ? *(sarrera doan / entrada libre)*
- ★ 19:00 **The Chop**
LIFE, ANIMATED

APIRILAK 3 ABRIL
astelehena / lunes

- 16:30 **Benditas infancias, 1**
AFTERIMAGE
- ★ 19:00 **Tous les jours**
JACKSON
- 19:00 **KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA**
CICLO CENTROS CULTURALES
EL COMIENZO DE LA VIDA
C. C. Okendo K. E. (sarrera doan / entrada libre)

APIRILAK 4 ABRIL
asteartea / martes

- 16:30 **Un état d'urgence**
ZONA FRANCA
- ★ 19:00 **Aquí es posible, Comunicación S. L.**
JUST A NORMAL PERSON
- 19:00 **KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA**
CICLO CENTROS CULTURALES
FUSILES O PINTADAS
C. C. Tomasene K. E. (sarrera doan / entrada libre)

APIRILAK 5 ABRIL
asteazkena / miércoles

- 16:30 **Champions**
LAND OF THE GODS
- ★ 19:00 **My Life I Don't Want**
TEMPESTAD
- 19:00 **KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA**
CICLO CENTROS CULTURALES
(H)EMEN HER(E) ELKARTEA:
Film laburrak / Cortometrajes
C. C. Intxaurren K. E. (sarrera doan / entrada libre)



VICTORIA EUGENIA

Aritzak

APIRILAK 6 ABRIL
osteguna / jueves

16:30 Vernon Walks
LA CAZADORA DEL ÁGUILA

★ **19:00** No Offense
BOILING POINT

19:00 **KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA**
CICLO CENTROS CULTURALES
LA PAZ INSURRECTA
C. C. Lugaritz K. E. (sarrera doan / entrada libre)

22:30 The Fourth Kingdom
EUS **NOMA**

APIRILAK 7 ABRIL
ostirala / viernes

★ **16:30** **ANATOMY OF VIOLENCE**
(sarrera doan / entrada libre)

19:00 **KULTUR ETXEETAKO ZIKLOA**
EUS **CICLO CENTROS CULTURALES**
FATIMA
C. C. Loiola K. E. (sarrera doan / entrada libre)

★ **20:00** **BUKAERA / CLAUSURA**
EUS **GLORY**

Sarrera / Entrada: **4,50 €**

Tabakalera: **3,50 €**


Victoria Eugeniako abonoa (katalogoa barne)

Abono para todas las sesiones del Victoria Eugenia (incluye catálogo): **22,00 €**

EUS = Euskarazko saioak / Sesiones en euskera

★ = Pertsona gorrentzat azpituak egokituak dituzten filmak eta zeinu hizkuntza zerbitzua duten solasaldiak / Sesiones con subtitulación accesible para personas sordas y coloquios con intérprete de lengua de signos

● = Saioak audiodeskripzioarekin / Sesiones con audiodescripción
(sistema: **whatscine**)



ZINEMA
CINE



Sheroes (2016). Carlos Caro
India-Espainia / India-España. 11 min
📺 hindi 📺 gaztelania, ingelesa

Bizitza konplikatua eta latza izan daiteke, baina bakoitzaren jarrerak errealitatea aldarazi dezake, ordea.

La vida puede ser complicada y dura, pero la actitud de cada una puede hacer cambiar la realidad.




Ezkontza behartuak, European ere bai
Matrimonios forzados, también en Europa

NOCES / A WEDDING (2016)
Stephan Streker
Belgika-Frantzia-Luxenburgo-Pakistan
Bélgica-Francia-Luxemburgo-Pakistán
95 min
📺 frantsesa, urdu 📺 gaztelania

Zahirak 18 urte ditu, Belgikan bizi da eta oso lotuta dago bere familiari. Baina gauzak aldatu egingo dira, Pakistaneko tradizioari jarraituz ezkontzeko proposatzen dioten artean senar bat aukeratzeko eskatzen diotenean. Famili eskakizunek estututa, eta bere bizimodu okzidentala eta bere askatasun nahia tartean direla, gazteak laguntza eskatuko dio bere anaia eta konfiantzazko lagun Amiri.

Zahira tiene 18 años, vive en Bélgica y está muy unida a su familia. Hasta que le piden que siguiendo la tradición paquistaní elija un marido entre los candidatos que le plantean. Atrapada entre las exigencias familiares, su forma de vida occidental y sus aspiraciones de libertad, la joven busca ayuda en su hermano y confidente Amir.



INAUGURAZIOA INAUGURACIÓN

El mundo de Embarka (2016)

Raúl San Román Otegi. Euskadi. 3 min

Embarka, una niña saharaui de 11 años, nació en un mundo que no era el suyo.

Embarka, 11 urteko neskatila sahararra, berea ez zen mundu batean jaio zen.

LEHIAKETATIK
KANPO
FUERA DE
CONCURSO



The Cut (2016)

Evangelia Soumeli. Grezia / Grecia. 15 min

📺 greko 📺 gatzelania

Elli, zirujaua, bere lagun Sofiaren presioa jasaten ari da haren alaba txikiari legez kontrako operazio bat egin diezaion.

Elli, cirujana, está siendo presionada por su amiga Sofia para que le practique una operación ilegal a su hija pequeña.



Arabiar Udaberrien arrastoaren atzetik

Tras el rastro de las Primaveras Árabes

CLASH / ESHTEBAK (2016). Mohamed Diab

Egipto-Frantzia / Egipto-Francia. 97 min

📺 arabiera 📺 gatzelania

Kairo, 2013ko uda. Egiptoko iraultzaren bi urte bete dira. Morsi islamiar presidentearen kargugabetzea eta gero, sinesmen erlijioso eta ideia politiko desberdineko manifestari ugari atxilotu zituzten, istilu bortitz batzuetan zehar. Poliziaren furgoi berean amaitu dira denak.

El Cairo, verano de 2013. Se cumplen dos años de la revolución egipcia. Inmediatamente después de la destitución de Morsi, el presidente islamista, decenas de manifestantes con convicciones políticas y religiosas distintas son arrestados durante unos violentos disturbios. Acaban en el mismo furgón policial.



La niña de la buseta (2016). Pedro Pío
Kolonbia-Espainia / Colombia-España
27 min  gaztelania

Film labur honek neska gazte baten bizitzako egun batzuk erakusten dizkigu: autobusetan goxokiak saltzen ditu bere haurrarekin bizitza aurrera atera ahal izateko. Bere inguruko garraztasunak bere instintu primarioenak argitara ateratzen ditu.

Unos días en la vida de una joven que vende dulces en las busetas para sobrevivir con su bebé. La crudeza del entorno que le rodea saca a la superficie sus instintos más primarios.



Uruguai, diktadura zibiko-militarra
Uruguay, dictadura cívico-militar

MIGAS DE PAN (2016)
Manane Rodríguez
Uruguai-Espainia / Uruguay-España
110 min
 gaztelania

Liliana Pereira bere herrialdera itzuli da. Bertan, jazarpena, kartzela zigorra eta bere semearen zaintza galtzea ekarri zituen iraganari egin beharko dio aurre. Indarkeria sistematiko baten biktima, beste emakume batzuk bezala, Lilianak aukeratu egin beharko du bihotzak eskatzen dionaren eta kontzientziak agintzen dionaren artean.


Liliana Pereira regresa a su país. Allí tendrá que enfrentarse a un pasado que le supuso persecución, presidio y la pérdida de la custodia de su hijo. Víctima junto con otras mujeres de una agresión sistemática, Liliana tiene que elegir entre lo que le pide su corazón y lo que le dicta su conciencia.



Watu Wote (2016). Katja Benrath
Alemania. 22 min
📺 swahili 🗨️ euskara, ingelesa

Azkeneko hamarkadan, Al-Shabaab taldearen eraso terroristak jasan ditu Keniak. Musulmanen eta kristauen arteko konfiantzarik eza areagotuz joan da ordutik aurrera.

Durante la última década Kenia ha sido objeto de ataques terroristas por parte del grupo Al-Shabaab. La desconfianza entre las confesiones musulmana y cristiana ha ido en aumento desde entonces.



Neska-mutilak asilo burokraziaren aurrean
Niños y niñas frente a la burocracia del asilo

THE WAIT (2016)
Emil Langballe. Danimarka / Dinamarca
58 min
📺 paxtuera, dari, daniera
🗨️ euskara, ingelesa

Rokhsar Sediqi afganiarra da, 14 urte ditu eta Given bizi da, Danimarkako herri txiki batean, non bertan ikasi eta futboleak jokatzen duen bere denbora librean. Rokhsar bere familiarekin bizi da deportazioaren etengabeko mehatxuarekin. Duela lau urte iritsi ziren eta asiloa eskatu zuten, baina agintarien erantzunaren zain daude oraindik. Rokhsar da danieraz ondo hitz egiten duen bakarra eta, beraz, bera komunikatzen da abokatuekin eta inmigrazio departamentuekin, bere eguneroko bizitzan karga handia adierazten duen zeregina, alegia.

Rokhsar Sediqi es afgana, tiene 14 años y vive en Give, pequeña localidad de Dinamarca donde estudia y juega al fútbol en sus ratos libres. Rokhsar vive con su familia bajo la amenaza continua de la deportación. Llegaron hace cuatro años y solicitaron asilo, pero las autoridades no se lo han concedido todavía. Rokhsar es la única que habla bien danés, por lo que ella es la que se comunica con los abogados y con el departamento de inmigración, lo que le supone una gran carga en su día a día.



APIRILAK 1 | 19:00

ABRIL

larunbata sábado



17 años juntos (2016). Javier Fesser
Espainia / España. 15 min gaztelania

Egun bat bi bikoteren bizitzan: Pepe eta Asun, ezkondu zirenetik elkarrekin 17 urte bete dituztenak, eta Walter eta Mardelina, etxeko enplegatuak direnez.

Un día en la vida de dos parejas: Pepe y Asun, que cumplen 17 años desde su boda, y Walter y Mardelina, que trabajan en la casa.



Zergatik eta zertarako egiten dugu lan?
¿Por qué y para qué trabajamos?

LA MANO INVISIBLE (2016). David Macián
Espainia / España. 83 min gaztelania

Poligono industrial urrun bateko nabe batean, lan sektore desberdinetako hamaika pertsonak zeregin desberdinetan dihardute: igeltsero bat horma bat eraikitzen ari da, geroago eraitsiko duena; emakume gazte

bat piezak jartzen ari da muntaketa kate batean, zertarako balio ote duten ez dakiela; harakin bat deskonposizio prozesuan dauden animaliak zatitzen; biltegiko mutil bat kaxak alde batetik bestera mugitzen...

En una nave de un apartado polígono industrial, once personas de distintos sectores laborales desempeñan diversas tareas: un albañil construye una pared que más tarde derriba; una joven coloca piezas en una cadena de montaje sin saber para qué sirven; un carnicero despieza animales en descomposición; un mozo de almacén mueve cajas de un sitio para otro...

Solasaldia / Coloquio

David Macián (filmaren zuzendaria / director de la película)

Josean Bengoetxea, Christen Joulin (aktoreak / actores)

Maitane Arnoso (psikologoa eta UPV-EHUko Lanaren Psikologia irakaslea / psicóloga y profesora de Psicología del Trabajo de la UPV-EHU)



APIRILAK 1 | 19:00

ABRIL

larunbata sábado

TABAKALERA



Austerlitz (2016)

Sergei Loznitsa

Alemania. 94 min

🎞 ingelesa, gaztelania, alemana

📺 gaztelania

Europar badira paisaiak iraganaren memoria mingarriaren erakusgarri. Izuaren fabrikak dira, gizakiak errauts bihurtu zituzten lekuak. Leku horiek oroitzapen eta erromes zentroak dira orain, publikoarentzat zabalik eta milaka turista hartzen dituztenak urtero. Film dokumental honek oroitzapenaren leku horietako bat bisitatzen duten pertsonak behatzen ditu; so egiten die kontzentrazio esparru bateko bisitariei. Zergatik doaz hara? Zeren bila doaz?

Hay paisajes en Europa que forman parte de la memoria dolorosa del pasado. Hablamos de las fábricas del horror donde seres humanos fueron convertidos en cenizas. Estos lugares son hoy en día centros de conmemoración y peregrinaje, abiertos al público y con miles de turistas cada año. Esta película documental es una observación de las personas que visitan uno de esos lugares de la memoria, un antiguo campo de concentración. ¿Por qué van allí? ¿Qué están buscando?



APIRILAK 1 | 22:30

ABRIL

larunbata sábado



Palabras de Caramelo (2016)

Juan Antonio Moreno Amador
Espainia / España. 20 min

Saharako basamortuko errefuxiatuen eremu batean mutiko gor bat bizi da, idazten ikasi nahi duena. Ongi etorri Kori-ren eta lagunik onena duen Caramelo gamelua-ren mundu isilera.

En un campamento de personas refugiadas del desierto del Sahara vive un niño sordo que quiere aprender a escribir. Les damos la bienvenida al silencioso mundo de Kori y su mejor amigo el camello Caramelo.



Kuba iraultzatik harago

Cuba más allá de la revolución

ÚLTIMOS DÍAS EN LA HABANA (2016)

Fernando Pérez

Kuba-Espainia / Cuba-España. 93 min

 gaztelania

Habana erdialdea, gaurko Habanaren muina. Miguelek New Yorkera ihes egitearekin egiten du amets. Inoiz iristen ez zaion bisatuaren zain, ontzigarbitzaile lanean ari da jatetxe partikular batean. Diegok bizitzearekin egiten du amets. Hiesak abailduta eta mugitu ezinik, orubeko logelarik txikieneko ohe estutik askatzen du bere energia guztia. Miguelek Diegori jaten ematen dion bitartean konturatzen joango gara gaua eta eguna balira bezala bizi direla biak elkarrekin.

Centro Habana, el corazón de la Habana de hoy. Miguel sueña con huir a Nueva York. Mientras espera un visado que nunca llega, trabaja como lavaplatos en un restaurante particular. Diego sueña con vivir. Postrado e inmóvil por el sida, libera toda su energía desde el estrecho camastro del cuarto más pequeño del solar. Mientras Miguel le da la comida a Diego, vamos descubriendo que ambos viven juntos como si fueran la noche y el día.



APIRILAK 2 | 16:30

ABRIL

igandea domingo



Beti bezperako koplak (2016)

Ageda Kopla Taldea

Euskadi. 5 min euskara gaztelania

Santa Ageda bezperako ospakizuna abiapuntutzat hartuz, Maialen Lujanbio bertsolariak genero idarkeriaren salaketa gordina egiten du.

Valiéndose de la celebración de la víspera de Santa Águeda, la bertsolari Maialen Lujanbio hace una denuncia descarnada de la violencia de género.



Emakume oroigarrien oroimenak

Mujeres memorables,

mujeres con memoria

**LEHIAKETATIK
KANPO**

**FUERA DE
CONCURSO**

AMA, NORA GOAZ? (2016)

Iban Gonzalez. Euskadi. 62 min

euskara gaztelania

Dokumental honetan

emakumeak dira istorioaren ardatza. Gerra Zibileko gertaera beltz baten protagonista izandako emakumeak. Emakume anonimoak, euren etxeak atzean uztera behartuak. Noraezean abiatu zirenak, euren senarrak edo aitak beste bandoan borrokan ari zirelako bakarrik errepresaliatuak. Beste ehunka emakumerekin batera, beste frontea izan ziren haiek, ahaztutako frontea, alegia. Biktimak, baina baita heroiak ere. Heroiak euren balentriagatik, seme-alabak gainean hartuta deserrirako bideari ekin izanagatik.

En este documental las mujeres son el eje de la historia. Mujeres protagonistas de un negro episodio de la Guerra Civil. Mujeres anónimas que se vieron obligadas a abandonar sus hogares. Que partieron sin rumbo, represaliadas por el mero hecho de que sus maridos o padres combatían en el otro bando. Ellas fueron, junto con otros cientos de mujeres, el otro frente, el olvidado. Víctimas, pero también heroínas. Heroínas por su valentía, cargadas de sus hijos e hijas, emprendieron el viaje al destierro.

Solasaldia / Coloquio

Iban Gonzalez (filmaren zuzendaria / director de la película)

Lore Albizu (filmaren protagonista / protagonista de la película)

Joseba Esnal (Lore Albizuren semea eta oroimen historikoan aditua / hijo de Lore Albizu y especialista en memoria histórica)



The Chop (2015). Lewis Rose
Erresuma Batua / Reino Unido. 17 min
📺 ingelesa, arabiera 📺 gaztelania

Yossi-k, *kosher* harakin karismadunak, bere lana galdu du. Zail egiten ari zaio lana berriro lortzea, eta beraz, musulmanaren itxurak egitea erabakiko du *halal* harategi batean lan egiteko.

Yossi, un carismático carnicero *kosher*, pierde su empleo. No consigue encontrar uno nuevo, así que decide hacerse pasar por musulmán para trabajar en una carnicería *halal*.

Espektro autistaren nahasmendua Trastorno del espectro de autismo



LIFE, ANIMATED (2016)
Roger Ross Williams
Estatu Batuak / Estados Unidos. 77 min
📺 ingelesa 📺 gaztelania

Owen Suskind-en istorioa dugu hau: autista gazte bat, 3 urte zituela hitz egiteari utzi eta denbora luzean mundutik bakartuta egon zena. Behinola, ordea, berarekin komunikatzeko modu berezi bat aurkitu zuen familiak, Disneyren animazio film klasikoek bitartez, alegia. Dokumental hau haren aitak idatzitako liburu batean oinarrituta dago, eta Oweni jarraitzen dio bere graduazioan eta bere aurreneko pausoak ematen hasten denean independente izateko bidean.

Esta es la historia de Owen Suskind, un joven autista que dejó de hablar a los 3 años y estuvo mucho tiempo aislado del mundo. Hasta que su familia descubrió una forma única de comunicación con él a través de las películas de animación clásicas de Disney. Este documental, basado en el libro escrito por su padre, sigue a Owen en su graduación y cuando comienza a dar sus primeros pasos hacia la independencia.

Solasaldia / Coloquio

Gautenako (Gipuzkoako Autismo Elkarte) ordezkariak
Representantes de **Gautena** (Asociación Guipuzcoana de Autismo)



APIRILAK 3 | 16:30

ABRIL

astelehena lunes



Benditas infancias, 1 (2016)

Iñaki Elizalde. Espainia / España. 5 min

 arabiera, ingelesa  gaztelania

Baraka lagun batekin ari da jolasean bere eguneroko lana egiteko deitzen diotenean. Bere munduan dena normala da itxuraz. Ez da horrela, ordea.

Baraka juega con un amigo cuando le llaman para hacer su trabajo diario. En su mundo, todo parece normal. Pero no lo es.



Errepresioa eta zentsura artean

Represión y censura al arte

AFTERIMAGE / POWIDOKI (2016)

Andrzej Wajda. Polonia. 98 min

 poloniera  gaztelania

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Wladyslaw Strzemiński pintore famatuak, Unismoaren teoriaren sortzaile eta momentu honetako artista plastiko gailenetakoak, Łódź-eko Arte Eder Eskolan dihardu irakasle

lanean. Poloniako agintariek ez dute begi onez ikusten bere lana, asko urruntzen delako inposatzen saiatzen ari diren errealdismo sozialeko doktrinetatik. Strzemińskik ez die jarraitu nahi Partiduaren aginduei eta bota egin dute unibertsiatetik eta artisten elkartetik.

Tras la Segunda Guerra Mundial, el afamado pintor Wladyslaw Strzemiński, creador de la teoría del Unismo y uno de los artistas plásticos más importantes del momento, trabaja como profesor en la Escuela de Bellas Artes de Łódź. Las autoridades polacas no ven con buenos ojos su trabajo, muy alejado de las doctrinas del realismo socialista que tratan de imponer. Strzemiński se niega a seguir los dictados del Partido y es expulsado de la universidad y de la unión de artistas.



APIRILAK 3 | 19:00

ABRIL

astelehena lunes



Tous les jours (2016). Philippe Orreindy
Frantzia / Frantzia. 14 min

 frantsesa  gaztelania

Françoise-k garrantzi handiko zuzendaritza postu bat du enpresa batean, eta erasota ikusten du bere burua bere nagusiaren aldetik.

Françoise tiene un importante puesto directivo en una empresa, donde se siente acosada por parte de su superior.



AEB: abortatzea libre edo abortatzetik libre?
EEUU: ¿aborto libre o libre de abortos?

JACKSON (2016). Maisie Crow

Estatu Batuak / Estados Unidos. 100 min

 ingelesa  gaztelania

Abortatzeak legala izaten jarraitzen du Estatu Batuetan; hegoalde sakonean, ordea, abortuaren aurkako erakundeek birtualki ezinezkoa, sarritan pentsaezina izatea lortu dute. Garai batean hamalau klinika zeuden

Misisipin abortuak praktikatzen zituztenak. Gaur egun bat geratzen da bakarrik.

El aborto sigue siendo legal en Estados Unidos, pero las organizaciones anti-abortistas han conseguido que sea virtualmente inaccesible en el profundo Sur, a menudo impensable. Hace un tiempo había catorce clínicas que practicaban abortos en Misisipi. Hoy solo queda una.

Solasaldia / Coloquio

Rosa María Calaf (kazetaria, nazioarteko berriemailea eta feminista / periodista, corresponsal internacional y feminista)

Arantza Campos (Plazandreeko-eko feminista, UPV-EHUko Berdintasuneko Masterraren zuzendaria eta Zuzenbide Fakultateko irakaslea / feminista de Plazandreeko, directora del Master en Igualdad de la UPV-EHU y profesora de la Facultad de Derecho)



APIRILAK 4 | 16:30

ABRIL

asteartea martes



Un état d'urgence (2016)


Tarek Roehlinger

Alemania-Frantzia / Alemania-Francia

12 min frantsesa gaztelania

Bi soldaduk maleta bat aurkitu dute Parisko kale bateko bazter batean.

Dos soldados encuentran en una calle de París una maleta abandonada.



Estraktibismoa eta turismoa "munduaren amaieran"

Extractivismo y turismo en el "fin del mundo"

ZONA FRANCA (2016). Georgi Lazarevski.

Frantzia-Txile / Francia-Chile. 100 min

gaztelania

Zona Franca distritu komertzial zaharkitu bat da Txileko Patagonian, Magallanes itsasartetik gertu. Eskualdeko toki guztie-

tatik suma daitezke transformazio izugarri baten aztarnak, Amerikako leku basati bakarra egungo kontsumo gizartearen isla bihurtu duten aldaketenak. Historiaren arrastoak eta mundua amaitzen den lekua den bila etorritako turista taldeen artean, urte bilatzaile bat eta kamioilari bat irmo egiten ari zaie aurre euren bizilekua suntsitzearekin mehatxatzen ari diren aldaketei. Indarkeriak estalia dirudi, baina berehala aterako da argitara greba batek eskualdea paralizatzen duenean.

Zona Franca es un anticuado distrito comercial situado en la Patagonia chilena, cerca del estrecho de Magallanes. Por todas partes de la región se pueden observar las cicatrices de una brutal transformación que ha convertido el último lugar salvaje de América en un reflejo de la sociedad de consumo de hoy día. Entre los restos de la historia y los grupos de turistas que tratan de encontrar el fin del mundo, un buscador de oro y un camionero resisten frente a los cambios que amenazan con destruir su hogar con una violencia que parece soterrada, pero que sale a la luz cuando una huelga paraliza la comarca.



Aquí es posible, Comunicación S. L.

(2016). Blanca Zaragüeta. Euskadi. 23 min
📺 gaztelania

Andonik, publizitate agentzia baten jabeak, kasualitatez ezagutu du bere bizilagun Enrike, Down sindromeduna.

**LEHIAKETATIK
KANPO
FUERA DE
CONCURSO**

Andoni, dueño de una agencia de publicidad, conoce de manera casual a su vecino Enrike, síndrome de Down.



Transexualitatea adin txikikoen artean Transexualidad en menores

JUST A NORMAL PERSON /

EN VANLIG FUCKING MÄNNISKA (2015)

Malin Björkman-Widell. Suedia / Suecia
58 min 📺 suediera 📺 gaztelania, ingelesa

Duela 22 urte jaio ziren Isabelle eta Denise bikiak. Txikitatik, ordea, Isabelle bazekien desberdina zela beste nesken aldean. Funtsean, Isabellek beti jakin izan du mutil bat dela, neska baten gorputzean jaioa. 6 urte zituela bazekien nagusi zenean aita izan nahi zuela, eta urte gutxi batzuk beranduago bere izena aldatu zuen.

Hace 22 años nacieron las gemelas Isabelle y Denise. Pero ya desde pequeña Isabelle supo que era diferente al resto de niñas. En el fondo Isabelle siempre ha sabido que es un chico nacido en el cuerpo de una chica. A los 6 años ya sabía que de mayor quería ser padre, y pocos años después cambió su nombre a Sam.

Solasaldia / Coloquio

Izaro Antxia (Gehituko transexualitate arloko arduraduna / responsable del área de transexualidad de Gehitu)


Aingeru Mayor (sexologoa eta Chrysallis Euskal Herria taldeko presidentea / sexólogo y presidente de Chrysallis Euskal Herria)



APIRILAK 5 | 16:30

ABRIL

asteazkena miércoles



Champions (2016). Anastasija Bräuniger
Alemania. 7 min

kurduera, ingelesa gaztelania

Haur talde kurdu batek, Irakeko iparraldean errefuxiatuen eremu batean bizi direnek, FIFArean bulegoetara deitu dute euren taldea hurrengo Munduko Futbol Txapelketan izena emateko.

Un grupo de niños y niñas kurdos que viven en un campo de personas refugiadas en el norte de Iraq llaman a las oficinas de la FIFA para inscribir a su equipo en el próximo Mundial de Fútbol.



Hinduismoa, kastak eta tradizioa

Hinduismo, castas y tradición

LAND OF THE GODS / DEV BHOOMI (2016)

Goran Paskaljević. India-Serbia. 92 min

hindi, ingelesa gaztelania, ingelesa

Denbora luzez Europan erbesteratuta egon ondoren, Rahul bere jaioterrira itzuli da, Himalayara. Izugarritzko zirrara eragingo du bere iritsierak komunitatean, bertan ez baitituzte ahaztu ezta barkatu ere, antza, iraganean egin zituen bekatuak. Rahulek aurre egin behar izango dio aurreiritziz eta desberdintasunez jositako mundu bati, kasta sistema bidegabeko batean oinarritutako munduari, non emakumeek ez baitute euren halabeharra erabakitzeke eskubiderik.

Después de un largo exilio en Europa, Rahul vuelve a su pueblo natal, situado en el Himalaya. Su llegada causa una gran conmoción en la comunidad, que no parece haber olvidado ni perdonado sus pecados del pasado. Rahul debe enfrentarse a un mundo lleno de prejuicios y desigualdades, basado en un injusto sistema de castas en el que las mujeres no tienen derecho a decidir su propio destino.



APIRILAK 5 | 19:00

ABRIL

asteazkena miércoles



My Life I Don't Want (2016)

Nyal Kyal Say. Myanmar. 12 min

 birmaniera, ingelesa  gaztelania

Libre al gara gure bizitza nahi dugun bezala bizitzeko? Animazioko film labur honetan Myanmar-eko neska gazte baten bizitza kontatzen zaigu, herrialde horretako benetako gertaeretan inspiratuta.

¿Somos libres para vivir nuestra vida como queremos? Un corto animado sobre la vida de una joven de Myanmar, inspirado en historias reales de este país.



Mexiko, narkotizatua

México, narcotizado

TEMPESTAD (2016). Tatiana Huezó

Mexiko / México. 105 min

 gaztelania

Goiz batean, ohiko egun horietako batean, bere lanpostuan atxilotu dute Miriam, eta inolako frogarik gabe, "pertsonek trafikoaz" akusatu dute. Hala, kartzelaldian jasandako indarke-riak arrasto sakona utzi du bere bizitzan. Adelak zirku ibiltari batean egiten du lan pailazoekin. Duela hamar urte zeharo aldatu zen bere bizitza: gauero, funtzioan zehar, bere alaba Mónica oroitzen du.

Una mañana de un día normal, Miriam es detenida en su lugar de trabajo y sin ninguna prueba es acusada de "tráfico de personas". La violencia a la que fue sometida y a la que estuvo expuesta durante su encarcelamiento han dejado una huella profunda en su vida. Adela trabaja en un circo ambulante como payaso. Hace diez años que su vida se transformó de forma irreversible: cada noche durante la función evoca a su hija Mónica.

Solasaldia / Coloquio


Victoria Mendoza Salgado (mexikar aktibista, idazlea eta psikologo soziala / activista, escritora y psicóloga social mexicana)



APIRILAK 6 | 16:30

ABRIL

osteguna jueves



Vernon Walks (2016). Santiago Zannou
Espainia / España. 12 min
📺 ingelesa 📺 gaztelania

Vernon-ek, Londresko abokatu beltz gazte eta azkar batek, bere karrerako kasurik garrantzikoena arrazoi bakar batengatik eman diotela jakingo du: bere larruazalaren kolorea.

Vernon, un joven y brillante abogado negro en Londres, descubre que el mejor caso de su carrera se lo han dado por un solo motivo: el color de su piel.



Tradizioa berritzea
Renovar la tradición

LA CAZADORA DEL ÁGUILA
(*The Eagle Huntress*, 2016)
Otto Bell. AEB / EEUU. 87 min
📺 kazakh, ingelesa 📺 gaztelania

